

**ORDENANTZA FISKALA, ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN ZANGAK, LAGINKETAK ETA ZULOAK EGITEKO ETA EREMU PUBLIKOAN ZOLADURA EDO ESPALOIAK MUGITZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

**19. ordenantza**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluako 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea honako hau da: erabilera publikoko toki-lurretan –errepideak, bideak eta tokiko beste eremu publikoak barne hartuta– zangak, laginketak eta zuloak egitea, tutueria, hodiak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko, bai eta eremu publikoan zoladura edo espaloiak mugitzea ere.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Zergak ordaintzeko betebeharra tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortzen da.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak, baldin eta, Ordenantza honen 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, tokiko jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

Oinarria, tasak eta tarifak

5. artikulua.- Tasa-oinarritzat egin beharreko aprobetxamendua gauzatu ahal izateko tokiko jabari publikoan mugitu edo ireki behar den azalera hartuko da.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako aprobetxamendu bereziak zein erabilera pribatiboari dagozkion tasak horren gaineko Ordenantza Fiskalak edo horiek arautzeko Udalak hartutako erabakiek gobernatuko dituzte.

Ondasunak eta instalazioak berreraiki, berrezarri edo konpontzea

6. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra duenak aprobetxamendua non egin eta bertako ondasun eta instalazioak berreraiki, berrezarri eta konpondu beharko ditu.

7. artikulua.- Konponezinak diren kalteak egiten badira, interesdunak ordaindu beharko ditu. Udal-teknikariek zehaztuko dute kalte-ordainen zenbatekoa, desegindako gaiek balio dutenaren edo kaltetutakoen balio-galeraren arabera, aplikagarri diren legeei jarraikiz.

8. artikulua.- Aurreko artikuluetan ezarritakoa betetze aldera, ordaintzeko betebeharra duenak gordailu bat egin beharko du, lehenik eta behin zanga behar bezala betetzeko erabiliko dena eta, behar izanez gero, zoladura emateko, bai eta konponezinak gerta daitezkeen kalteak ordaintzeko ere.

Gordailua indarra duten arauak edo lizentziaren baldintzak hausteagatik izan daitezkeen zehapenei lotzen ahal zaie. Fidantza berreskuratu ahal izateko, horren aldeko txostena eman beharko da, non egiaztatuko baita indarra duten arauak eta lizentzia hartzeko baldintzak hertsiki bete eta lurzorua behar bezala konpondu dela.

9. artikulua.- Gordailuen zenbatekoak aprobetxamendurako zenbateko azalera baimendu eta horren arabera zehaztuko dira, Tarifa-eranskinean ezarritakoarekin bat. Gordailuak eskudirutan ordaintzen ahalko dira, edo kreditu-entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal zein fidantza solidario baten bidez. Izapide laburreko lizentzien kasuan, gordailuak eskudirutan ordaindu behar dira.

Zaharbertzeko Diru-laguntzei buruzko Ordenantzari heltzen dioten birgaitze-obren kasuan, gordailuen zenbatekoa onuradunei dagozkien diru-laguntzek osatuko dute.

Kudeaketa-arauak

10. artikulua.- Edozein arrazoi dela medio tokiko erabilera publikoko lurretan, zangak, laginketak edo zuloak egin edo zoladura edo espaloiak mugitu nahi dituzten pertsona natural edo juridikoek behar den baimena eskatuko diote Udalari, eta horretarako *Hirigintza Prozedurari eta Urbanizazioari buruzko ordenantzetan* eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta, hala behar izatera, *Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta eremu publikoan tokia erreserbatzeko lizentziei buruzko Ordenantzan* eskatutakoa ere bete beharko dute.

11. artikulua.- Ordenantza honetan araututako tasak eta gordailua autolikidazio-araubidean eskatuko dira, halako eran non eratu edo ordaindu beharko baitira Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskaleko kudeaketa-arauek ezarritako epearen barruan. Izan ere, arau horiek aplikatuko dira Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan.

12. artikulua.- 1) Izapide laburreko araubidearen menpeko lizentzien eskatzaileek edo zanga premiazko prozedura bidez legeztatze eskatzen dutenek lizentzia-eskabidearekin batera aurkeztuko dituzte tasen zein Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren autolikidazioaren agiria –behar bezala beteta– eta ordainketaren egiaztagiria.

2) Autolikidazio-agiria aurkezteko betebeharra ez betetzea tributuei dagokien arau-hauste zehagarria izanen da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren IV. Kapituluaren xedatutakoarekin bat.

3) Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin, inongo kasutan, lizentzia ematea, eta hori egiaztatzen duen agiria erretiratu beharra dago, behin bideratu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

### TARIFA-ERANSKINA

Ordenantza fiskal honetan aplikatuko diren tarifak honako hauek dira:

<b>I. EPIGRAFEA.- ZANGAK IREKITZEA, IBILGAILUEN PASABIDEAK, KARGA-AHOAK, HAIZEBIDEAK, LUKANAK ETA KALAPATXAK EGIN EDO EZABATZEA ETA ZOLADURA EDO ESPALOIAK MUGITZEA-</b>	
I.1. Metro lineal bakoitzeko, alderik handieneran	26,75 euro
I.2. Etxebizitzak Zaharberritzeko Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren babespeko obrak badira, ireki beharreko zanga, laginketa edo zulo bakoitzeko (luzera kontuan hartu gabe)	25,35 euro
I.3. I.3. Baldin eta, zanga, laginketa edo zulo bat egiteko, ibilgailuen zirkulazioa eten behar bada, dela erabat dela norabide, bide edo gune garrantzitsu bat erabilezin utzita, aurreko epigrafeetako tarifek gehikuntza hau izanen dute:	% 30

<b>II. EPIGRAFEA - GORDAILUAK, ZANGAK, LAGINKETAK EDO ZULOAK EGITEAGATIK ETA ZOLADURA EDO ESPALOIAK MUGITZEAGATIK (PASABIDEETARAKO LIZENTZIAK IZAN EZIK)-</b>	
II.1. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, luzerako metro bakoitzeko,	
- Harrizko zoladura den lekuetan	224,00 euro
- Zoladura orokorra den lekuetan	154,00 euro
- Zoladurarik gabeko lekuetan	88,00 euro
II.2. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal batekoa edo handiagoa bada, luzerako metro bakoitzeko,	
- Harrizko zoladura den lekuetan	269,00 euro
- Zoladura orokorra den lekuetan	181,00 euro
- Zoladurarik gabeko lekuetan	102,00 euro